

# EAE-KO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ARTXIBO NAGUSIAREN MEMORIA

# 2020

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO  
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA  
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

## 01/ Giza baliabideak

Zerbitzuko arduraduna: 1  
Arloko arduraduna: 1  
Artxibozainak: 4  
Artxibozain laguntzailea: 1  
Administrazio-laguntzaileak: 2  
Administrari laguntzailea: 1  
Mandatarari mendekoa: 1

2020. urtean, artxibozain eta liburutegiko goi-mailako teknikariaren plaza berri bat sortu da artxibo-arlorako, eta uztailean bete ze

## 02/ Instalazioak eta ekipamendua

### **Lakua II eraikina:**

156 m<sup>2</sup>-ko hiru gordailu eta 312 m<sup>2</sup>-ko beste 6 gordailu, armairu konpaktuekin

### **Gamarra eraikina:**

15 metroko altuerako 11 korridore robotizatu, bi robotek kudeatutako eta 6.011 m<sup>2</sup>-ko azalera hartzen duten 25.979 erretilu edukizailerekin.

Eraikin bietan funtzio anitzeko erreprodukzio-makinak daude (fotokopiagailuak, inprimagailuak eta digitalizagailuak), transpaletak eta dokumentu-kutxak garraiatzeko orgak.

Kontsulta-gelan mikroformak irakurgailu-erreproduzigailu bat, eta hari lotutako PC bat eta inprimagailuak daude; 2 PC, AKS/SGA artxibo-kudeaketaren sistema informatikorako sarbidearekin.

### **Kale Nagusiko eraikina:**

Gordailu bat, armairu konpaktuekin.

### **Andia eraikina:**

Gordailu bi, armairu konpaktuekin.

## 03/ Dokumentu-kudeaketa

### 3.1. ARTXIBO NAGUSIAN UTZITAKO AGIRIAK

Gordailuan utzitakoen kopurua: **470**


Gordailuan utzitako kutxen kopurua, guztira: **22.488**

*Ekoizlearen arabera banaketa*

EKOIZLEA	GORDAILUAK	KUTXAK GUZTIRA	GUZTIAREN %
URAREN EUSKAL AGENTZIA	8	432	1,92
ALOKABIDE	2	286	1,12
AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA	1	108	0,48
KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA	34	420	1,86
EKONOMIAREN GARAPENA, SOSTENIBILITATEA ETA INGU- RUMENA	65	1191	5,29
HEZKUNTZA	37	3358	14,97
ELANKIDETZA	43	586	2,60
BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK	38	910	4,04
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	23	704	3,13
EKONOMIA ETA OGASUNA	41	2754	12,28
IVAP	2	17	0,07
KONTSUMOBIDE	2	6	0,02
LANBIDE	37	4313	19,17
LEHENDAKARITZA	20	298	1,32
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK	25	2705	12,12
OSAKIDETZA	6	289	1,28
OSASUNA	20	850	3,78
SEGURTASUNA	30	1220	5,42
SPRI	6	249	1,10
LANA ETA ENPLEGU	20	1169	5,20
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	2	20	0,08
WISESA	8	603	2,75
<b>GUZTIRA</b>	<b>470</b>	<b>22.488</b>	<b>%100</b>

## 2010-2020 aldian sartutako kutxen kopurua

### SARRERAK



### 3.2. DOKUMENTU-XAHUKETAK

Artxibo Nagusian egindako xahuketen kopurua: **69**

Artxibo Nagusian guztira xahututako kutxen kopurua: **20.412 kutxa**

Bulegoko Artxiboan guztira xahututako kutxak: **1.711 kutxa**

Ezabatutako kutxen kopurua, guztira: **22.123 kutxa**

#### Artxibo Nagusiko xahuketak

*Ekoizlearen arabera xehaturik*


EKOIZLEA	XAHUKETAK	KUTXAK GUZTIRA
SPRI	5	2582
HEZKUNTZA	1	607
EKONOMIA ETA OGASUN	2	223
LANBIDE	6	2163
SEGURTASUNA	1	101
OSASUNA	10	1559
LAN ETA ENPLEGU	42	12602
OSAKIDETZA	2	575
<b>GUZTIRA</b>	<b>69</b>	<b>20.412</b>

## Bulegoko Artxiboko xahuketak

### *Ekoizleen arabera xehaturik*

<b>EKOIZLEA</b>	<b>XAHUKETAK</b>	<b>KUTXAK GUZTIRA</b>
SEGURTASUNA	1	138
HABE	1	240
EKONOMIAREN GARAPENA, SOSTENIBILITATEA ETA INGURUMENA	2	43
IVAP	1	101
BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA INGURUMENA	3	1.189
<b>GUZTIRA</b>	<b>8</b>	<b>1.711</b>

XAHUKETAK ARTXIBO NAGUSIAN: 2010-2020 BITARTEAN



### 3.3. ARTXIBO NAGUSIAREN FUNTSEN HAZKUNDEA


2020ko bukaeran Artxibo Nagusian metatutako hazkundera hau izan da:

Gordailuak, guztira: **907.073 kutxa**

Garbiketak, guztira: **252.763 kutxa**

Artxibo Nagusiko kutxak 2020ko abenduaren 31n: **654.310 kutxa**

#### ARTXIBOAREN HAZKUNDEA





### 3.4. GORDAILU ROBOTIZATUAREN ERAIKINA

Instalazioan guztira **25.979** metalezko erretilu daude, eta **623.469** kutxa zuri normalizatu sartzeko edukiera dauka.

2020-12-31n, instalazioan guztira **510.580** kutxa daude, beraz, okupazio osoaren % **81,90** hartzen dute. Dokumentuak zuri koloreko kutxetan eta marroi koloreko kutxetan gordetzen dira; hortaz, **47.519** kutxa zuri eta **6.655** kutxa marroi gordetzeko leku dago.

### 3.5. ARTXIBO NAGUSIAN GORDETAKO AGIRIETARAKO IRISPENA

#### Irispenak Artxibo Nagusian

2020an egindako eskaerak, guztira: **10.054**

Horietatik,% 68 emakumeek egin dituzte (6.836) eta% 32 gizonek (3.218).

*.Ekoizleen eta irispen-sistemaren arabera xehaturik*


EKOIZLEA	AKS-TIK KANPOKO KONTSULTAK	AKS-KO KONTSULTAK
URAREN EUSKAL AGENTZIA	0	404
AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA	0	1
KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA	24	1639
EKONOMIAREN GARAPENA, SOSTENIBILITATEA ETA	5	5142
INGURUMENA		
HEZKUNTZA	149	363
ELANKIDETZA	0	41
EMAKUNDE	0	6
BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK	13	62
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	215	242
EKONOMIA ETA OGASUNA	12	114
IHOBE	0	1
IVAP	63	16
LANBIDE	3	67
LEHENDAKARITZA	0	23
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOA	45	936
KONTRATU BALIABIDEEN ADMINISTRAZIO-ORGANOA	0	1
OSAKIDETZA	10	29
OSALAN	0	8
OSASUNA	8	67
SEGURTASUNA	0	1
SPRI	1	2
LANA ETA ENPLEGU	13	99
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	2	6
VIKESA	0	221
<b>GUZTIRA</b>	<b>563</b>	<b>9.491</b>

*Irispen motaren arabera xehaturik*

IRISPEN MOTA	2020
Mailegua	5.529
Kontsultak	4.441
Erreprodukzioa	45
Behin betiko baztertzea	39
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.054</b>

**Irispen kopurua, 2011-2020 bitartean**


- Mailegua
- Kontsultak
- Erreprodukzioak
- Behin betiko baztertzea



*Irispen-sistemaren arabera xehaturik*

IRISPEN MOTA	AKS-TIK KANPOKO IRISPENAK	AKS-KO IRISPENAK
Mailegua	280	5.149
Kontsulta	202	4.339
Erreprodukzioa	42	3
Behin betiko baztertzea	39	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>563</b>	<b>9.491</b>


**Eskaerak: irispen-sistemaren arabera 2010-2020 bitartean**



*Erabiltzaileen eta irispen-sistemaren arabera xehaturik*

ERABILTZAILE MOTA	AKS-TIK KANPOKO IRISPENAK	AKS-KO IRISPENAK	GUZTIRA
ADMINISTRAZIOA	397	5.152	5.549
HERRITARRAK/IKERKETAK	166	4.339	4.505

**Erabiltzaile motaren araberako kontsultak, 2011-2020 bitartean**



### 3.6. BARNE-KUDEAKETAKO JARDUERAK

#### *Ikertzaileen erregistroa.*

2012. urtean sortu zen. Guztira **968 erabiltzaile** erregistratu dira. 2020an **88** ikertzaile berrik eman dute izena.

#### *Agiriak txertatzea.*

2020an, **560** espedientetan gehitu dira agiriak.

### 3.7. ARTXIBO NAGUSIKO INFORMATIKA-BALIABIDEAK

#### **ARTXIBOA KUDEATZEKO SISTEMA (AKS/ SGA) - S54B**

##### *XML fitxeroen kargatzea*

Erregistroak kargatzeko programa horren bidez (jada gordailututa dauden edo transferitzeke dauden erregistroak), artxibatze-sisteman **236.865** erregistro irauli dira aplikazioan 2020. urtean, eta **74.284** kutxetan zeuden.

COVID-19ren ondorioz etxeko konfinamendua egin denez, Zerbitzuko langile batzuek datu-baseetan kargatu dute paperezko inbentarioen edukia, AKS/SGAra migratzeko

##### *AKS aplikazioaren ezarpena*

Sailkapen-taula garatzen eta aplikazioa sailetan ezartzen jarraitu da. Aplikazioa gaur egun Administrazio Orokor eta Instituzional ia osoak erabiltzen du AKS/SGAren tresna artxiboa kudeatzeko, baita sektore publikoaren zati handi batek ere.

2020-12-31n AKS/SGAn honako hauek daude deskribatuta:

- Bulegoko Artxibo mailan: 1.325.915 espediente
- Artxibo Nagusian: 6.208.257 espediente.

Gaur egun, honako hauek deskribatuta daude AKS/SGA sisteman (garbitutako agiriak ere sartuta daude):

Artxibo Nagusian: **685.080** kutxa, **6.208. 257** erregistrori dagozkienak

Bulegoko Artxiboan: **30.052** kutxa, **1.325.915** erregistrori dagozkienak

Hortaz, Artxibo Nagusian gordailututako kutxen % **75,52** AKS/SGA aplikazioan deskribatuta daude (gordailutuko eta garbitutako kutxak dira).

#### ***Aplikazioan ezarritako aldaketak***

AKS/SGAren eremuko aplikazio guztien azpiegitura informatikoen mantentze egokitzaileren barruan, aurten haien modernizazio teknologikoari ekin diogu, eta, horretarako, uda framework-era migratu ditugu aplikazio hauek:

- AKS/SGA (s54b)
- OPAC (S54a)
- COVASAD (v48b)

## **ARTXIBO NAGUSIKO LINEAN KONTSULTATZEKO KATALOGO PUBLIKOA (OPAC) - S54A**

2020an zehar, 1970/12/31 baino lehenagoko **61.126** erregistro kargatu dira, herritarrek OPACen bidez eskura ditzaten.

## 04/ Antolaketa

### 4.1. DOKUMENTU-FUNTSAK BERRANTOLATZEKO LANAK

#### ADMINISTRAZIO PUBLIKO FUNTSA

##### *Baliabide Orokorren atala*

Atal honetako 8 serie aztertu dira COVASADera bidaltzeko.

#### NEKAZARITZA FUNTSA

##### *NEIKER azpifuntsa*

Neiker sozietate publikoa Artxibo Sistemari sartzeko proiektua hasi da. Prozedurak aztertu ditu eta sailkapen-taularen lehen bertsioa egin du.

#### GIZARTE GAIAK FUNTSA

##### *Gazteria atala*

Atal honetako 11 serie aztertu dira COVASADera bidaltzeko.

##### *Inmigrazioa atala*

Atal honetako 11 serie aztertu dira COVASADera bidaltzeko.

#### KULTURA FUNTSA

##### *Hizkuntza Politikako atala*

Atal honetako 15 serie aztertu dira COVASADera bidaltzeko.

##### *Etxepare azpifuntsa*

Bi bilera egin dira idazkariarekin, erakundearen dokumentu-produkzioa antolatzeko eta dokumentazioa artxibatze irizpideak eta epeak ezartzeko.

#### HEZKUNTZA FUNTSA

##### *Ikastetxeen atala*

2020. urtean zehar, Odei, S.L. enpresaren laguntzarekin, Eibarko Armeria Eskolatik helarazi zen 1980 baino lehenagoko dokumentazioa antolatu eta inbentariatu da.

##### *UNIBASQ azpifuntsa*

Agentziarekin harremanetan jarri gara berriz, irakasleen ebaluazio-deialdietan sortutako dokumentazioa artxibo-sisteman antolatze eta integratzeko.



## OGASUN FUNTSA

### *Kontratazio Atala*

Bilerak egin dira Kontratazio Elektronikoaren Plataformako arduradunekin, prozedurak, serieak eta dokumentu-motak definitzeko, Dokusin integratze aldera.

### *Finantza Politikaren Atala*

Zuzendaritza Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen (BGAE) Erregistroa digitalizatzeko prozesua gainbegiratzen eta aholkatzen jarraitu du, erregistroko espediente guztiak elektronikoki berreraikitzeko.

## INDUSTRIA FUNTSA

### *Industria Administrazio atala*

Meategien, Energiaren eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu gara behe-tentsioko espedienteen arazketa informatikoa eta dokumentala kontratatzeko oinarri teknikoaren agiria egiteko.

EJIEren laguntza teknikoarekin batera, Artxibo Nagusian gordeta zeuden amaiera-datarik gabeko milaka erregistro zuzendu dira

Hainbat bilera egin dira saileko laguntza teknikoarekin, hainbat serie artxibatzean dauden arazoak zuzentzeko eta eragindako dokumentuak zuzentzeko.

Instalazioen ikuskapenei dagozkien 35 serie aztertu dira, COVASADera bidaltzeko.

### *Berrikuntza teknologikoaren atala*

Atal honetako 10 serie aztertu dira COVASADera bidaltzeko.

### *Basque Trade and Investment azpifuntsa*

Sozietateko langileekin lankidetzan aritu gara, izapideak amaitu dituen Nazioartekotze Zuzendaritzak sortutako dokumentazioa antolatu, inbentariatu eta gordailatzeko.

Bestalde, lankidetzan ari gara gizarteak sustatzen duen Nazioartekotze Beken Programaren onuradunen datuak biltzeko.

### *Energiaren Euskal Erakundearen Azpifuntsa*

Hainbat bilera egin dira EEEko teknikariek, erakunde hori izapidetze elektronikoko korporatiboan eta Artxibo Sistemaren bateratzeko prozesua hasteko. Haren egitura eta izapidetzen ari diren prozeduren zati bat aztertu ditu, dagozkion kodeak esleituta.

## KONTSUMO FUNTSA

Kontsumobideko informatikariek bilerak egin dira, haien espedienteak artxibatzeko modulua garatzeko.

## JUSTIZIA FUNTSA

### *Giza eskubideen atala*

Atal horietako 12 serie aztertu dira, COVASADera bidaltzeko, balorazioa egin dezan.

## LEHENDAKARITZA FUNTSA

Kanpo Ekintza, Euskal Gizataldeekiko Harremanak eta Idazkaritza Nagusia sailetako dokumentazioa antolatu, inbentariatu eta AKS/SGAn kargatu da.

Atal horietako 21 serie aztertu dira, COVASADera bidaltzeko, balorazioa egin dezan.

### *INTERBASK azpifuntsa*

Desagertu den INTERBASK sozietate publikoari dagokionez, jatorri desberdinetatik berreskuratutako dokumentazio guztia antolatu, deskribatu eta AKS/SGAn kargatu da.

## INGURUMEN FUNTSA

### *Ingurumenaren Kalitatearen Atala*

INGURUNET aplikazioan izapidetze elektronikoa ezartzeko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak izapidetutako zerbitzuak eta prozedurak egokitzeko prozesuaren barruan, aplikazio berrian jada ezarrita dauden prozedura bakoitzari lotutako dokumentu-motak berrikusi eta zuzendu dira.

Zuzendaritzako beste zerbitzu batzuetako prozeduren analisiak aurrera egiten jarraitu du.

## OSASUN FUNTSA

### *Adikzioen atala*

Atal honetako 9 serie aztertu dira COVASADera bidaltzeko.

### *Prestazio eta zerbitzu sanitarioen atala*

Atal honetako 8 serie aztertu dira COVASADera bidaltzeko.

### *Osakidetza azpifuntsa*

Bilboko Amatasun Funtzari buruzko 3 kontsulta egin dira guztira.

Historia klinikoen inbentarioa egiten ari dira, datu-base batean kargatzeko. Guztizkoaren % 20 gauzatu da.

## LAN FUNTSA

### *Gizarte Ekonomia Atala*

Kooperatibei eta Lan Sozietateei buruzko dokumentazioaren berrantolaketa eta inbentarioa amaitu da, deskribapen egokirik gabe. Guztira, Koperatiben Erregistroko 935 kutxa prozesatu dira, 5.023 erregistroekin; Kooperatiben 607 dokumentazio-kutxa likidatu dira, 7.578 erregistroekin, eta Lan Sozietateen Erregistroko 188 kutxa, 954 erregistroekin.

### *Enplegu eta Prestakuntza atala*

Atal honetako 12 serie aztertu dira COVASADera bidaltzeko.

### ***HOBETUZ azpifuntsa***

Hobetzen itxiera osatzeko eta kudeaketako dokumentazio guztia jasotzeko, instalazioak bisitatu ziren eta langileei irizpideak eman zitzaizkien Fundazioko dokumentazioa artxibatu eta transferitzeko, 1986an hasi zenetik bertan gorde baitzen.

Guztira 670 kutxa sartu ziren Artxibo Nagusian.

### ***LANBIDE azpifuntsa***

Bilerak egiten jarraitu dugu Lanbideko artxibozainarekin eta bulego ekoizleekin, digitalizatuko diren prozedurak eta sailkapen-taulan falta diren prozedurak aztertzeko, dokumentazioaren arabera.

2020an zehar, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) dokumentazioa digitalizatzeko proiektua amaitu da, tokiko bulegoetan dagoena, kudeaketa-aplikazioan kargatzeko eta ondoren Artxibo Nagusira transferitzeko. Lan hori Odei eta Gureak enpresek egiten dute. 2020an 2.803 kutxa transferitu dira

Lanbideren 15 serie aztertu eta identifikatu dira, COVASADera bidaltzeko.

### ***OSALAN azpifuntsa***

Zenbait bilera egin dira Osalaneko artxibo-teknikari berriarekin, erakundearen dokumentu-ekoizpena definitzeko eta Zerbitzuen Katalogoan eta Artxibo Nagusiko sailkapen-koadroan islatzeko.

### ***SAGAZDE azpifuntsa***

AKS/SGAn antolatu, deskribatu eta kargatu da desagertutako SAGAZDE sozietate publikoei buruzko hainbat jatorritatik berreskuratutako dokumentazio guztia.

## **4.2. DOKUMENTU-KUDEAKETAREN ANTOLAKETA**

### **DOKUMENTUAK KUDEATZEKO EREDUA - Dokusi**

EJIErekin eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzarekin (HHABHZ) lankidetzan jarraitu dugu Dokusi izeneko Dokumentuak Kudeatzeko Eredua garatzeko.

Dokumentu elektronikoen datuen kalitatea hobetzeko proiektu bat amaitu da, eta espediente elektronikoak artxibatze prozesuak automatizatzeko oinarriak ezarri dira, bai eta kontrol batzuk ere, espedienteak izapidetu ahal izan aurretik nahitaezko metadatuak sar daitezten.

Herritarrak dokumentuak bidaltzen dituen Administrazioak ematen dituen justifikazio-dokumentuei buruzko irtenbideak ere aztertu eta ezarri dira, bai eta dokumentu elektronikoen bistaratze osoa ere (edukia, metadatuak eta sinadura barne).

Era berean, hainbat prozesutan aurrera egin da, hala nola dokumentuen bisatuan eta zuzemenean eta kontratu txikietarako eta kostu judizialerako izapidetze-ereduen diseinuan.

Dokusi Batzordeak 93 dokumentu-serieri kodeak esleitu dizkie.

## DOKUSIREN OKUPAZIOARI BURUZKO TXOSTENA

Artxibo Nagusiak Dokusiren okupazio-mailaren jarraipena egiten du hiru hilean behin.

Hilean 884.000 dokumentu hazi dira, batez beste 2020. Urtean.

2020an zehar eboluzio hau izan da Dokusiren memoria okupatuan eta dokumentu kopuruaren hazkundera:

### 4.3. DOKUMENTAZIOAREN BALORAZIOAKO, AUKERAKETARAKO ETA DOKUMENTAZIOA JOTZEKO BATZORDEA (COVASAD)

Bi bilera egin dira: urriaren 7an eta azaroaren 24an. Horietan, guztira, 174 serie baloratu dira Herri Administrazio, Gizarte Gai, Merkataritza, Kontsumo, Kultura, Industria, Justizia, Lanbide, Lehendakaritza, Osasun, Lan eta Turismoko funts eta azpifuntsetatik, 19.888 kutxa guztira.

2020ko otsailaren 28ko EHAAn argitaratu zen Gobernantza Publiko eta autogobernuko sailburuaren 2020ko otsailaren 7ko Agindua, Gizarte Gaietako, Hezkuntzako, Ogasuneko, IVAPeko, Lanbideko, Lehendakartzako, Osasuneko, SPRIko eta Laneko funts eta azpifuntsei dagozkien kontserbazio-egutegiak onartzen dituena, Dokumentazioa Balioesteko, Hautatzeko eta Eskuratzeko Batzordeak (COVASAD) erabakitakoak,

Data	31/12/2018	31/03/2019	30/06/2019	30/09/2019	31/12/2019	31/12/2020
Dokumentuak, guztira	23.646.889	25.505.157	28.507.126	30.040.252	32.222.083	42.828.104
Memoria, guztira	8,57TB	9,26 TB	10,36 TB	11,09 TB	12,04 TB	17,71 TB

## 05/ Kanpo-harremanak eta prestakuntza

### **BISITAK ARTXIBO NAGUSIRA (GAMARRAKO ERAIKINA)**

Aurten, COVID-19aren ondorioz ezarritako murrizketen ondorioz, ez da jarduera hori egin.

### **TEKNIKARIEKIKO BILERAK**

Zerbitzuaren arduradunak "Artxibo elektronikoa: sistemak, esperientziak eta etorkizunerako aukerak" gaiari buruzko mahai-inguru bat antolatu du otsailaren 4an eta 5ean Leganesen antolatutako Artxiboaren II. Biltzar Nazionallean.

Artxiboen arloko Ereiten enpresak eskatuta, bilera bat egin zen bi ordezkariekin, administrazio elektronikoari eta artxiboari buruz hitz egiteko.

Artxibo autonomikoen komunikazio-talde bat sortu dute dokumentu elektronikoen kudeaketaren arloko irtenbideei buruzko informazioa trukatzeko, eta Artxibo Nagusiak parte hartzen du.

Urrian, PIQL enpresak eta Norvegiako enbaxadak antolatutako "Epe luzeko zaintza digitalari" buruzko jardunaldi birtualean parte hartu zen.

### **DOKUMENTAZIOA BALIOESTEKO ETA AUKERATZEKO BATZORDEA (COVASED)**

Zerbitzuaren arduraduna COVASEDen bi bileratan izan zen, 2020ko urtarrilaren 8an eta uztailearen 15ean, Bilbon. Horietan baliozkotu ziren, besteak beste, COVASADek 2019ko urrian eta abenduan egindako proposamenak.

### **EMANDAKO IRAKASKUNTZA**

Artxiboko teknikariek hainbat bulegotako langileak prestatzen jarraitu dute AKS/SGA aplikazioan paperezko espedienteak, mistoak eta elektronikoak artxibatzekeo prozesuan.

Azaroan, Industria Saileko artxibo-teknikari arduradunak hiru eguneko prestakuntza eman zien Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saileko Arabako Ordezkaritzako zenbait pertsonari, AKS/SGAn aplikazioen espedienteak artxibatzekeo moduari buruz.

### **JASOTAKO IRAKASKUNTZA**

Zerbitzuaren arduradunak IVAPek maiatzean antolatutako "Jabetza intelektuala liburutegi eta artxiboetan: sen ona, jardunbide egokiak eta kasuen ebazpena" ikastaroan parte hartu du.

Artxiboko teknikarietako bat IVAPek ekainean antolatutako

“Informazioaren segurtasuna administrazio elektronikoaren esparruan” ikastaroan izan da.

## **KULTURA MINISTERIOKO ARTXIBOEN ERROLDA**

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusiari dagozkion datuak eguneratu eta osatu dira, Kultura Ministerioak mantentzen duen Artxiboen Erroldaren barruan.

## **LANKIDETZA IVAPEKIN**

Arloko arduradunak eta teknikarietako batek gai bana idatzi dute etorkizuneko administrari laguntzaileen eta administrarien lan-eskaintza publikoan IVAP prestatzen ari den gairerendarako.

## **LANKIDETZA KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREKIN**

Jaurlaritzaren legegintza-planaren barruan, Dokumentuen Kudeaketa Integralari eta Dokumentu Ondareari buruzko Legea egitea eta onartzea ezarri zen, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren baterako ekimen gisa.

Prozesu horretan, lantaldeak hainbat bilera egin ditu jasotako

alegazioak eta txosten juridikoak berrikusteko, 2021eko urtarrilean Eusko Legebiltzarrerara bidaltzea espero den aurreproiektuaren izapidetzeari jarraitzeko.

Halaber, Euskadiko Liburutegiarekin lankidetzan aritu gara antzinako meategien plano batzuk digitalizatzen. Plano horien irudiak Euskarianan zintzilikatuko dira, AKS/SGAn sartu dira eta OPACen bidez kontsultatu daitezke.

## **EUSKAL ESTADISTIKA PLANEKO DATUAK DATUAK EGUNERATZEA: EAE-KO ARTXIBOAK 2019.**

Kultura Sailburuordetzak eskatuta, Ikertalde EAEko Artxiboak 2019 estatistika-eragiketarako egindako inkesta bete da.

## **SARE SOZIALETAN PARTE HARTZEA: TWITTER**

Artxibo Nagusiak 350 txio argitaratu zituen urtean zehar. 284 jarraitzaile ditu.

## **ARGITALPENAK**

Zerbitzuaren arduradunak eta dokumentu-kudeaketaz arduratzen den EJIeko teknikariak, Gloria Barcelok, “Dokusi: Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren

dokumentu-kudeaketako sistema" ri buruzko artikulu batekin lankidetzan jardun dute, Wolters Kluwerrek argitaratutako Dokumentu Elektronikoen kudeaketa liburuaren bigarren edizioan.

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

GOBERNANTZA PUBLIKO  
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA  
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2021